



Eman hegoak euskarari



Hilerrien literaturaz

Heriotza beti egon da presente literaturan, Erromantizismoa eta gero

JON KORTAZAR



L iteratura irakurleek maite ohi dute liburuak gaika aukeratzea. Urliak maitasuna gaitzat hartu duten kontakizunak maite ditu, Berendiak krimen literatura goresten du, Sendiak nobela historikoak go-raipatuko dizkizu. Baina badago inor hilerriaren inguruko literaturaz gozatzen duenik?

Hilerri erromantikoa

Ez ditut aipatuko erromantizismoa eta kanposantuetan jarritako eszena nagusiak, Mozarten 'Don Giovanni' operan gertatzen den moduan, bere mamu beldurgarriekin, mamutxa galduekin, arima erratu eta beste munduko gaueko berriz bizituekin.

Caspar David Friedrichen 1818an margotutako 'Monasterio bateko hilerri' lana oso esanguratsua da, eta mila aldiz aipatu da erromantizismoak agertu duen heriotzarekiko sentsibilitatearen

adibidea emateko.

Hilerri erromantikoa izan du bere itzala gure literaturan. Heriotzaren poeta dugunez, Lizardik bere poesian segizio gogoangarri utzi zigun bere 'Ots!/ Ots!/ bizion oñok' bertso hirukote miresgarrian. Egia da XX. mende hasierako literaturan adibide paregabeak sortu zirela. Nola ahaztu Esteban Urkiagak, Lauaxetak, irakurri zuela Paul Valéryren 'Itsas hilerria', zeinetik hartu zuen bertso ikusgarria: 'Itsaso horren narru nabarra/ pantera batena dirudi'. Migel Angel Unanuek honela itzuli du iturria: 'Bai! Heriotzako itsasotzar, / Pantera azal ta klamide ari'.

Edo Balea Zuria argitaletxeak orain gutxi argitaratu eman duen Edgar Lee Mastersen 'Spoon River Antologia' (1916), Alain Lopez de la Calleren itzulpen txalagarriaren hitzekin. Jakina da berrehun eta berrogeita lau pertsonen historia kontatzen duela liburuak, de-

nak daude Spoon River deituriko herri asmatuan lurperatuak, eta bakoitzak bere bizitza kontatzen du, lehen pertsonak eman ohi duen hurbiltasunarekin.

Hilerria pentsaleku

Gaurko literaturak ere jaso du heriotzaren bidea eta berriro jarri du kanposantua ekintzaren kokaleku gisa. Bernardo Atxagaren 'Etxeak eta hilobiak' litzateke bide berrien eredu garbia. Nobela horren azken aldean hiru anaia biltzen dira kanposantuan amari agurra emateko. Heriotzaren aurrean egileak bere pentsakizunaren sakontasuna, bakartasunaren itzalaren hotza, herioaren aurrean sentitutakoaren aipamena adierazi dizkigu.

Hilerriaren paisaia

Orain gutxi Peter Rossen liburua famatu egin da. Isabel Hurtado de Mendozak trebeki egin duen itzul-

penean 'Una tumba con vistas' lanean, turismo literatura deitu izan den generoan, hilerri desberdinetara eginiko bisitak kontatu ditu. Kontakizunen bidea da eskaini duena, baina berezia denez izango ditu bere irakurleak, zalantzarik gabe. Hilerri berezi eta desberdinak aipatu ditu lanean. Marea behera dagoenean soilik ikusi daitekeena, ohar dohatsuzak bizirik dagoenari etorkizunari berri ematen diotena eta beste asko. Kontakizunez eta bitxikeriaz beteriko lana dugu hori, ikuskizuna eta literatura bildu dituen.

Hilerria eta umore beltza

Baina hilerriak izan dezake beste doinu bat ere. Irlandako literaturan umore beltza darion kontakizuna egiteko erabili dute heriotza. Esanguratsua da Seumas O'Kellyren 'Ehulearen hilobia' nobelatxo, non agure bik elkarri errieta egiten dioten ehulea izandakoaren hilobia Irlandako kanposantu txiki batetan ezin aurkituz. Geroago eta beroagoa da eztabaida, geroago eta hutsalagoak direnean euren ahaleginak.

New Yorkeko kronista deitua izan den Joseph Mitchell gaztelehar berriki ateratu dioten liburuan ere, 'Porturen hondoa' deituri-

koan, hilerriek zeresan handia dute. Batak zuzen-zuzen adierazi du gaia: 'Hunter jaunaren hilobia' deitu baitu. Mitchellen interesa ez da umorea agertzea. New Yorketik hurbilean bizi diren gizaki ahaztuen bizitza marraztu nahi du. Kanposantuek herriaren iturburua ezagutzeko eta historia marrazteko tokiak dira. Baina Hunterren kasuan ezin du muzin egin eta umore beltza da kontakizuna borobiltzeko modua. Kontua da Hunter jaunak bere emaztearen ondoan hilobiratua izatea nahi duela, eta jada bere hilobiaren buruan bazuen bere hilarria landua. Baina lurperatzaileak ez du tokirik utzi berarentzako hilobian. Horregatik Hunter jaunak jakin badaki ez duela betiko bakea emaztearen ondoan edukiko.

Eta honela bukatzen da kontakizuna: 'Ondoko hilobiraino pausu luze bi eman zituen. Eta emaztearen ondoan jarri ordez, hemen lurperatuko naute'. Lurretik belar txiki bat ateratzeko makurtu zen: 'Kasurako, -esan zuen- alde batean zein bestean egon, gauza bera izango da'.

Umore beltza beti egon da penean eta lantuarrekin lotuta, bersarkatuta.

Genero literarioen mugarriak

PALOMA RODRIGUEZ-MIÑAMBRES

Bernardo Atxagak aurkezpen gutxi behar du irakurleentzat, ibilbide luze eta sariduna baitu. Obra honetara hurbiltzen denak topatuko ditu egilearen gai kuttunak, hala nola, heriotza, maitasuna edo beldurra, izenburutik bertatik iragarritako, modu triste nahiz umoretsuan.

Atxagak adierazi du aspaldi buruan zerbait egitasmoa gauzatu duela liburu berriaren literatur genero desberdinak uztartuz, etiketak jarzeari ihesi nahian. Izan ere, bost ataletan banatzen da obra hau, prosa ('Paradisua utzi behar', 'Pierrek dioena entzuten dut'), kontu autobiografikoak ('Tour bat Franzian barrena', 'Euskal Literatura zaharrari buruzko hitzaldia Martuteneko kartzelan') eta poesia ('Despedidako poemak') jorratzen dituena.

Euskal tradizioari eginiko keinuak ahaztu gabe, forma narrati-

boak eta poetikoak era natural eta bikainean azaleratzen ditu. Hasierako tonu melankolikotik komikoagora igarotzen da, esaterako, Martuteneko espetxean eman zuen hitzaldiari buruzko pasarteetan bi ikuspegi kontrajartzen direnean. Batetik, sortzailearena, non ironiaren erabilera antzematen dugun idazleak entzuleen arreta bereganatzeagatik 'pairatzen' dituen estualdiak irakurtzean -eta hor topikoa eta gogoeta literatura-sorkuntza eta harreraz, hau da, ze irakurgai, prosa ala poesia, izango den egokiena publiko horrentzat-. Bestetik, presoaren errealitatea, prosaikoagoa (hitzaldian interesa izatearen plantak egin baina dirua

besterik nahi ez duen preso, bakarrik egoteko parada bilatzen duen bikotea, ustezko salatari izateagatik isolaturik dagoena...).

Zenbait mementuan artefaktu jostagarri bat plazaratu ote duen galdetzen diogu geure buruari, divertimento antzeri. Dena dela, Atxagak heldutasunaren beste obra bat aurkezten digulakoan nago, zeinetan, umoreaz lagundurik, gaien unibertsaltasuna eta kontagintzaren teknikak ongi menderatzen dituela erakusten duen.



PARADISUAREN KANPOKO ALDEAK
BERNARDO ATXAGA
Pamiela. 144 or.
17 euro.

LABUR-LABUR

Durangoko Azokak badu iragarkia!

LEIRE LARRAZABAL

Hemen da, ate-joka dugu Durangoko Azoka, bere 58. edizioan, 'Fantasia DA!' lelopean. Azkar esaten da, baina argi dagoena da urte mordoa direla, zalantzarik ez. Bi urte barru, sei hamarkada. Eta, hori bai, inoiz baino osasuntsuago. Hau ere garrantzitsua da, izan ere, urteak igaro arren, sendo mantentzen delako eta euskal kulturaren jarraitzaileok gorrion markatuta ditugun datak direlako.

Aurten, Durangoko Azoka abenduaren 6tik 10era bitartean ospatuko da eta berriro iragartzeko iragarkia argitaratu da jandak. Ximon Agirrek kartelerako sortu zuen unibertso fantastikoan murgiltzen da protagonista, errealitate birtualera jauzi eginez, azokaren osagai anitza ezagutzeko: liburuak, diskoak, musikariak, bideojokoak, zinegileak...



Iragarkiaren momentu bat.

Hala, Ximon Agirrek berak zuzendu du iragarkia, errealitate birtualean sortutako irudiak oinarri moduan hartuta. Kasu honetan, prozesuan Alex Perez eta Antton Goikoetxearen laguntza izan du. Perezek animazioan lan egin du, eta Goikoetxeak animazioan zein musikan.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Loak ezkututzen duena
Patxi Zubizarreta. Elkar.

2 Miñan
Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

3 Paradisuaren kanpoko aldeak
Bernardo Atxaga. Pamiela.

4 Kantu berri bat gara
Jon Maia. Elkar.

EZ FIKZIOA

1 Juana
Jon Artano. Elkar.

2 Txikia
Iñaki Egaña. Txalaparta.

3 Arrakasta
Jasone Osoro. Elkar.

4 Nerabeen garrasia
T. Lazkano/ M. Ormazabal. Alberdania.